

DONOSTIAKO ETXERIK GABEKO PERTSONAK (EGP)

LANERAKO DEKALOGOIA

Gizarte Kontseiluko EGPen Lan Batzordea



DEKALOGOAREN LABURPENA

1. Gizarteratzeko **baliabide eta zerbitzuetan eskualdeen arteko desorekak zuzentzea**, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Mahaiaren bidez.
2. **Administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen gizarteratzean eta laneratzean arrakasta izan duten esperientziak errepikatzea**, Eusko Jaurlaritzarekin, Lanbiderekin, enpresa-elkarteekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin batera lan eginez eta enplegura bideratutako prestakuntza-ibilbide laburrak planteatuz.
3. Helburuak eta egutegia finkatuta, **Donostiako administrazioaren egungo koordinazio taldea osatzea**, hiriko administrazioarekin eta hirugarren sektorearekin elkarlanean.
4. Egoera kronifikatu eta konplexua bizi duten **pertsona bereziki zaurgarrien arreta hobetzea**.
5. Espazio fisiko seguruagoak eta esku hartzeko prozesu bereziak ezartzea **etxerik gabeko emakumeentzako baliabideetan**.
6. Familia-sarerik ez duten **gazteei laguntzeko programak zabaltzea**.
7. **Etxerik gabeko pertsonen oinarrizko premien** (jantokia, dutxak, garbitegia, atsedena, aterpetxeak) **estaldura hobetzen jarraitzea**, bai administrazioetan, bai **erakundeetan**.
8. Osakidetzarekin batera aztertzea **zer aukera dauden etxerik gabeko pertsonen gainean jarduteko**.
9. Ostatu- alternatibekin (harrera-baliabideak, pisuak) **lotutako erakunde eta entitateekin lankidetzak-ekintzak ezartzea**.
10. **Etxerik gabeko pertsonen parte-hartzea bultzatu gainerako biztanleei ibilbide positiboa egin dutela ulertarazteko**, igaro duten egoera ezagutu, eta haien egoera hobetu daitekeela jakinarazteko.

HITZAURREA

Donostiako Udaleko Gizarte Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek 2024ko martxoaren 5ean egindako bileran, **hiriko etxerik gabeko pertsonen egoerari buruzko proposamenak aztertu eta egiteko Lan Batzorde bat sortzea baimendu zen**. 2024ko martxoaren 13an, eratu zen Batzordea eta etxerik gabeko pertsonen buruzko zirriborroa idatzi zen. Zirriborroa Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkura aurkeztu zen, apirilaren 16an.

Apirilaren amaieran eta azaroaren amaiera bitartean zazpi bilera egin dira (apirilaren 30ean, maiatzaren 7an, maiatzaren 29an, ekainaren 12an, uztailaren 3an, urriaren 9an eta azaroaren 28an). Lehenengo bilera egin ondoren, **ekintza zehatzen dekalogo bat egitea erabaki zen**, Lan

Batzordearen hausnarketak eta proposamenak laburbiltzeko. Gainera, **inkesta bat egin zen, eta Batzordeko kideei aurkeztu zitzaien**, gaiaren alderdirik garrantzitsuenak zeintzuk ziren jakiteko.

Errealitate horren alderdi tekniko zehatzak ezagutzeko eta sakontzeko, urriaren 9ko bileran Lanbideko ordezkari bat (Ander Rodríguez Lejarza), Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko ordezkari bat (Kino Martínez), Osakidetzako Osasun Mentaleko ordezkari bat (Alvaro Iruin), Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordetzako ordezkari bat (Santiago Trillos eta Clara Pérez Acosta) eta Adnane Bentarhlia (kale egoeran dagoen eta ibilbide positiboa egin duen pertsona) izan ziren.

LAN BATZORDEAREN OSAERA

- **Garikoitz Agote.**
Gizarte Zerbitzuen Saila. Udaletxea.
- **Yoanna Amondarain.**
Adsis. Batzorde Iraunkorra.
- **Sergio Corchón.**
Cáritas.
- **Sheyla Corcóstegui.**
Zozketa bidez aukeratutako herritarra. Batzorde Iraunkorra.
- **Kepa Korta.**
Batzorde Iraunkorra.
- **Amaia Lasheras / José María Larrañaga.**
Arrats. Gizarte Kontseilua.
- **Elena Luquin.**
Gurutze Gorria. Batzorde Iraunkorra.
- **Saad Malec Subeir.**
Jatorkin.
- **Juan Rekondo.**
Zozketa bidez aukeratutako herritarra. Gizarte Kontseilua.
- **Iker Usón.**
Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Aitziber Zubillaga / José Barreiro.**
Emaús Fundazioa. Batzorde Iraunkorra.
- **Daniel Zulaika.**
Batzorde Iraunkorra.

ETXEGABETASUNAREN EGUNGO EGOERA DONOSTIAN

Etxegabetasuna ezagutzea bereziki zaila da. **Ez dago datu-base komunik** ez Gizarte Zerbitzuen sistema publikoaren barruan, ez gizarte-erakundeekin lankidetzan.

Hala ere, **hainbat iturri ditugu Donostian etxerik ez duten pertsonen egoerara hurbiltzeko**. Lehenengoa **Kale Gorrian da, bi urtean behin EAEko 30 udalerritan kalean egiten den pertsonen gaueko zenbaketa**. Azken zenbaketa 2024ko urriaren 23tik 24ra bitarteko gauean izan zen.

Aurten, beste edizio batzuetan ez bezala, taldeetan antolatutako boluntarioek egindako zenbaketa tradizionalaren osagarri, **profesionalek alde aurretik identifikatutako kokalekuetan egindako zenbaketa kualifikatua** egin da, horietan gaua igarotzen duten pertsonen ohiko existentzia ezagututa.

Gau horretan, guztira, **413 pertsona zenbatu ziren Donostian** (kalean eta aterpetxeetan); horietatik 370 (% 93,90) gizonetzkoak ziren eta 24 (% 6,1) emakumezkoak. % 90 inguru magrebtarrak dira. Horrek esan nahi du **bikoiztu egin direla 218 identifikatu ziren 2022ko aurreko zenbaketarekin alderatuta**.

Erabilitako beste bi iturri Gurutze Gorriak eta Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak artatutako pertsonak dira. 2024an (urrira arte), etxerik gabeko 794 pertsona artatu ditu Gurutze Gorriak Gipuzkoan (2023 osoan 810 pertsona artatu ziren). Horietatik % 85 Marokotik (% 47) eta Aljeriatik (% 38) datoz; % 86 administrazio-egoera irregularrean daude, batez beste 30 urte dituzte eta 22 emakumeak dira.

2024ko azaroaren 30era arte, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak **1.650 pertsona artatu ditu egoitza-bazterketan**, eta horietatik 806 lehen aldiz zerbitzuan laguntza jaso duten pertsonak dira. 2023 osoan 1492 pertsona artatu ziren.

Datu horiek guztiak bat datoz bi gertaeratan: **Etxerik gabeko pertsonen kopurua nabarmen handitzen ari dela eta gehienak magrebtar gazteak direla**.

ETXERIK GABEKO PERTSONEI BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK DONOSTIAN

Hirugarren sektoreko erakundeek eta eragileek 5.841.376€ bideratu zituzten iaz Donostian etxerik gabeko pertsonak artatzera.

UDALETXEA	3.316.355 € (2023 gastu arrunta)
	2.945.504 € (2023-2024 inbertsioa)
CÁRITAS / GURUTZE GORRIA / ADSIS	1.851.688 € (2023)
EUSKO JAURLARITZA	673.333 € (2024 gastu arrunta)
GASTU ARRUNTA, GUZTIRA	5.841.376 €
GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA GUZTIR	8.786.880 €

2025ean, Udalaren aurrekontua 4.876.000€koa izango da, hau da, % 47 igoko da. Gainera, 3 milioi euroko inbertsioa egin da, **eguneko arretarako zentro berri bat edo bizitegi-bazterketa egoeran dauden familientzako gune berri bat** izateko. Gaur egun, Donostiako Udalak bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako **234 ostatu-plaza** eskaintzen ditu urte osoan zehar.

EKINTZEN DEKALOGOA

1. **Gizarteratzeko baliabide eta zerbitzuetan eskualdeen arteko desorekak zuzentzea, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren bidez.**

Etixerik gabeko pertsonen kopurua nabarmen handitu denez, beharrezkoa da gizarteratzeko baliabideak eta zerbitzuak zabaltzea. Zerbitzu-handitze hori, ordea, lurralde osoan egin behar da, hiru eskualdek bakarrik (Oiarsoaldea, Bidasoa eta Donostialdea) baitituzte bazterkeriari aurre egiteko zerbitzuak.

EGPen kopurua asko handitu denez, beharrezkoa da gizarteratzeko baliabideak eta zerbitzuak handitzea. Zerbitzuen handitze hori, ordea, lurralde osoan burutu behar da, hiru eskualdek soilik (Oiarsoaldea, Bidasoa eta Donostialdea) baitzuten 2023an Gizarte Zerbitzuen Mapan bazterketari aurre egiteko ezarritako zerbitzuen estaldura.

Horrela, bada, Gipuzkoako eskualdeei egokituko litzaieke bazterketari aurre egiteko eta, ondorioz, etxegabetasunari aurre egiteko baliabideak garatzea, erantzunkideak izatea eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan

finkatutako zerbitzuak sortzea, Donostiak egin duen bezala (Gipuzkoan gaueko 98 harrera-plaza eta eguneko arreta-zerbitzuetan 95 plaza sortzea falta litzateke). Horrek, gainera, zerbitzuak eta etxerik gabeko pertsonak deskontzentratzea ahalbidetuko luke, eta hori, estrategikoki, funtsezkoa da.

2. **Administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen gizarteratzean eta laneratzean arrakasta izan duten esperientziak errepikatzea, Eusko Jaurlaritzarekin, Lanbiderekin, enpresa-elkarteekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin batera lan eginez eta enplegura bideratutako prestakuntza-ibilbide laburrak planteatuz.**

Erakundeek eta hirugarren sektoreko eragileek hainbat esperientzia jarri dituzte abian administrazio-egoera irregularrean eta/edo bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko.

Hona hemen ekimen horietako batzuk:

- **Bizitegi programa, Donostian bizitegi-bazterkeriari aurre egiteko udal-laguntzen programa.** Programa honek ostatua, prestakuntza eta enplegua eskaintzen dizkie etxegabetasun-egoeran dauden pertsoneri. Programa honek 144 onuradun izan ditu 2019tik 2024ra bitartean. Pertsona horietako gehienek gizarteratzeko prozesua jarraitzen dute, eta eskubidezko beste programa eta laguntza ekonomiko batzuk erabiltzen dituzte.
- **Habitat Donosti ekimena, Housing First ereduaren pean.** Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak pandemiaren aurretik aktibatu zuten ekimen hori, bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako bost etxebizitza sustatuz. Ekimen horrek erakutsi du, etxebizitzaren oinarriko estaldurarekin, kalteak murrizteaz gain, hobeto eraikitzen direla gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak.
- **Trapezistak programa.** Eusko Jaurlaritzak Trapezistak ekimena bultzatu du. Ekimen horri esker, 2024an, Donostian erroldatutako edo bizi diren 50 pertsonen gizarteratzeko programa bat izan dute, prestakuntzaren, gizarter-laguntzaren eta bizitegi-baliabideen bidez.
- 2023an, **Gipuzkoako Ostalaritza Elkarrekin Eskolanbide proiektua sortu du, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen laneratzeko sustatzera bideratutako ekimena, eta etxerik gabeko pertsona batzuen laneratzeko ere barne hartu du.** Horri esker, 27 pertsonak lortu dute egoitza-baimena, eta horietako 21 ostalaritzan sartu dira lan-munduan, lan-baimena lortuta. 2024an, esperientzia arrakastaz errepikatu da, Adsis Fundazioarekin lankidetzan. Hori egin ahal izan da uztailaren 26ko 629/2022 Errege Dekretuan jasotako errotze figura berri baten sorrerari esker, hau da, prestakuntzarako errotzeari esker, eta lan-, gizarter- eta familia-errotzeari buruzko gehitu zaie¹.

Lantaldeak proposatu du esperientzia horietan oinarrituta antzeko beste batzuk garatzea etxerik gabeko pertsonentzat.

3. Helburuak eta egutegia finkatuta, Donostiako administrazioaren egungo koordinazio taldea eta hirugarren sektorea formalki egonkortzea.

Hirugarren sektoreko erakundeak eta erakundeak (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Udala) aspalditik gabiltza lankidetzaren estuan etxerik gabeko pertsonen arreta lantzen. Ohikoak dira lankidetzaren publiko-pribatuak etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko programetan eta erakundeen arteko koordinazio-mahaiak.

Hala ere, etxegabetasunaren hazkunde handiak, migrazio-fluxuen hazkundearekin lotuta, beharrezkoa egiten du lankidetzaren publiko – publikoa eta publikoa- komunitarioa indartzea, bizitegi, eremu soziosanitario eta soziolaboralarekin lotutako beste sistema batzuk barne.

¹ Prestakuntzarako errotzeagatik, bizileku-baimena lortu ahal izango dute, hamabi hilabeterako, gutxienez bi urtez Espainian etengabe egon direla egiaztatzen duten atzerritarrek. Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte, modu metagarrian: a) Espainian eta jatorrizko herrialdean edo azken bost urteetan bizi izan den herrialdean edo herrialdeetan zigor-aurrekaririk ez izatea. b) Enplegurako prestakuntza arautua egiteko konpromisoa hartzea, edo profesionaltasun-zurtagiri bat lortzekoa, edo enplegu-zerbitzu publikoek sustatutako edo berriazko okupazio bat gauzatzeko beharrezkoa den gaitasun teknikoaren edo lanbide-gaikuntzaren ziurtagiria lortzera bideratutako prestakuntza, 65.1 artikuluan aipatzen den katalogoan jasotako lanbideetan aritzera bideratua, edo, unibertsitateen etengabeko prestakuntzaren esparruan, prestakuntza- edo lanbide-gaitasunak eta -trebetasunak zabaltzeko edo eguneratzeko ikastaroak egiteko konpromisoa hartzea, bai eta etengabeko prestakuntzari dagozkion beste irakaskuntza batzuetakoak ere. Ondorio horietarako, egoitza-baimena emateko ebazpena jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean egin beharko da matrikulazioa. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-12504

4. Egoera kronifikatu eta konplexua bizi duten pertsona bereziki zaurgarrien arreta hobetzea.

2022ko zenbaketaren datuen arabera, kalean dauden pertsonen herenak lau urte baino gehiago daramatza etxerik gabe. Horietako batzuek osasun-arazo larriak edo kronikoak dituzte, eta ez dute tratamendurik jasotzen. Beste batzuek nahasmenduak eta gaixotasun mentalak dituzte. Beraz, pertsona talde bat dago, bereziki hauskorra dena, eta horretan esku-hartzearen ikuspegiak kalteak eta arriskuak murriztea izan behar du, kasu guztietan oinarritzko premien estaldura eta aitortutako eskubide guztietarako benetako sarbidea ziurtatuz.

Donostiak hainbat baliabide eta zerbitzu ditu, eta horien helburua, hain zuzen ere, oinarritzko premiak betetzea da, kalteak eta arriskuak murrizteko ikuspegiarekin.

Horien artean daude Gaueko aterpea², Abegi etxea³ eta Errondo Gure etxea⁴, Hestia⁵ duela gutxi sartu delarik.

² Gaua igartzeko, mantenerako eta higiene pertsonalerako zerbitzuez gain, esku-hartzeko psikosoziala, entzute aktiboa eta emozioei eustea eskaintzen ditu.

³ Egonaldi berezien erregimena barne hartzen du, eriondo-kasuetarako, asilo politikoko programei erantzuteko itxaronaldietarako, birgaitze-programetarako edo baliabide ekonomikoak lortzeko itxarote-programetarako.

⁴ Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako arreta integratuko zentro honek pertsonen bizitza hobetzeko helburuarekin lan egiten du, kalteak murrizteari, autodeterminazioari eta bizi-kalitateari dagokienez.

⁵ Egoera bereziki zaurgarriak eta kronifikatuak dituzten pertsonen arreta hobetzeko asmoz, Udalak kaleko arreta-zerbitzu berri bat txertatu du neguko protokoloaren esparruan, eta mantenu-zerbitzu berri bat izango du bereziki hauskorrak diren eta espazio normalizatueta bizitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat. Neurri handi batean, hori jada egiten ari da, eskakizun txikiko laguntza intentsiboko prozesuekin Gauek Aterpean, San Juan de Dios eta, laster, Hestian.

5. Espazio fisiko seguruagoak eta esku hartzeko prozesu bereziak ezartzea etxerik gabeko emakumeentzako baliabideetan.

Emakumeei begirada espezifikoa ematea proposatzen da, kale egoeran dauden emakumeentzat (eta adingabeentzat) bereizitako espazio fisikoak eta esku hartzeko prozesuak ezarriz, seguruago eta gizonentzako guneetatik independenteago. Horretarako, aldez aurretik egoeraren diagnostikoa egin behar da, eta Abegi Etxea eta beste baliabide espezializatu batzuk leku egokiak izan litezke behaketarako eta gero espazio berezi batera igartzeko, epe ertainean esku hartzeko (batez ere pisu moduan).

6. Familia-sarerik ez duten gazteei laguntzeko programak zabaltzea.

Familia-sarerik ez duten gazteei helduaroaren hasieran laguntzeko programei esker, laguntza psikosoziala, prestakuntza eta lan-bitartekaritza eskain daitezke, eta horiek kaletik atera eta bizitegi-baliabide bat ematen zaie. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako Trapezistak programa da horren adibide arrakastatsu bat.

Trapezistak programa 2022aren hasieran hasi zen Bizkaian, familia-sarerik gabeko 18 eta 25 urte bitarteko gazteen kolektiboari gizarteratzeko prozesurako beharrezkoa zen aldi baterako laguntza eskaintzen zion proiektu pilotu batekin. 22 urteko mutil gazte bat familiarik gabe migratzen ari da Marokotik, Aljeriatik edo Saharaz hegoaldeko Afrikatik; 18 hilabete baino gehiago daramatza Euskadin, hiri-ingurunean bizi da eta gizarte-laguntzako sarea eraikitzen ari da. Bizkaiko pilotajearen ondoren, Gipuzkoa sartu zen programan, eta, 2023ko uztailetik, Araba. 2024an, Donostian bizi edo erroldatutako 50 gaztek hartu dute parte programa horretan.

Euskadin familia-sarerik ez duten 18-30 urteko gazteengan eraginkortasuna erakutsi duenez, horrelako ekimenak pertsona gehiagori zabaltzea proposatzen da, bai erabiltzaile gehiago sartuz, bai horiek eskuratzeko baldintzak malgutuz. Programa horiek funtsezko zeregina dute kalteberatasun-egoerak prebenitzeko, hala nola gizarte-bazterketa, etxebizitzarik eza eta osasun mentaleko arazoak.

⁶ <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/albistea/2023/trapezistak-programak-familia-sarerik-gabeko-374-gazteri-laguntzen-die-prestakuntza-aholkularitza-eta-bizi-baliabideen-bidez-gizarteratze-prozesuan/>

7. Etxerik gabeko pertsonen oinarrizko premien (jantokia, duxak, garbitegia, atsedena, aterpetxeak) estaldura hobetzen jarraitzea, bai administrazioetan, bai erakundeetan.

Batzuetan, alderdi praktiko zehatzek asko hobetu dezakete etxerik gabeko pertsonen bizi-kalitatea. Horretarako, inplikaturako erakundeek eta administrazioek etxerik gabeko pertsonen oinarrizko premien estaldura hobetzea proposatzen da (jantokia, duxak, garbitegia, atsedena, aterpetxeak).

8. Osakidetzarekin batera aztertzea zer aukera dauden etxerik gabeko pertsonen gainean jarduteko.

Kalean bizitzeak muturreko osasun-egoeran jartzen ditu pertsonak. Etxerik gabeko pertsonak gaixotasun kronikoak, desnutrizioa, infekzioak eta gaixotasun mentalak izaten dituzte. Egoera horretara iristea prebenitzean, arrisku horiek murriztu daitezke, haien ongizate fisikoa eta psikologikoa babestuz. Osakidetzarekin lan egin behar da ildo horretan aurrera egiteko.

9. Ostatu-alternatibekin (harrera-baliabideak, pisuak) lotutako erakunde eta entitateekin lankidetzak-ekintzak ezartzea.

Hiriko eta inguruko bizitokien arazoak oso konplexuak direnez, irtenbideak ez dira errazak eta azterketa sakonagoa egin behar da. Ostatu-alternatibekin lotutako erakunde eta entitateen arteko lankidetzak funtsezkoa da etxerik ez duten pertsonen bizitzeko leku bat ez ezik, benetako gizarteratze soziala eta ekonomikoa lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntzak eskura izatea bermatzeko. Gakoa lankidetzak sare sendo eta koordinatuak sortzea da, pertsona bakoitzaren behar espezifikoetara egokitutako erantzun integrala emateko.

10. Etxerik gabeko pertsonen parte-hartzea gainerako biztanleei ibilbide positiboa egin dutela ulertarazteko, zer egoeratan igaro diren pertsona horiek, eta haien egoera hobetu daitekeela jakinarazteko.

Sarritan, kaletik lan-mundura ibilbide positiboa izan duten pertsonen parte-hartzeak izugarriko balioa du herritarrei ulertarazteko pertsona horiek zer egoeratik igaro diren, eta indartu egiten du beren egoera pertsonalak hobetu daitezkeela dioen ideia.